

Hezkutza sistema aldatzen laguntzeko **11 puntu.**



Agur t´erdi

Pasa den abuztuan izandako bileran gure eskakizun eta eginkizunen gaineko informazioa eman genizuen.

Ondoren datorren txostenean, berriz, hainbat gairen gaineko hausnarketa eta eskaera sorta atxikitu dugu. Zalantza izpirik gabe, datozen lau urteetan gaiak sakonago lantzeko aukera izanen dugu. Ikusiko dugu zein ibilbide eta egutegi zehazten dugun, ahal izanez gero denon artean, eta nolako irtenbidea emanen diogun egun Nafarroako hezkuntza sistemak duen berrikuntza erronkari.

1.- PAI

2.- LOMCE

3.- Lan Eskaintza Publikoa

4.- Formazioa

5.- Hezkidetzeta.

6.- 0/3 zikloa.

7.- Lanbide Heziketa.

8.- Nafarroako Eskola Kontseilua

9.- Epaitegietara eramandako auziak

10.- Hezkuntzan hartu beharreko berehalako neurriak eta Hezkuntza Departamentuaren organigrama

11.- Sindikalgintza.

1.- PAI gelditzearen beharra.

Denon ezaguna da **steilas** sindikatuak PAI programaren gainean duen iritzia. Programa hau ezarrita duten ikastetxeak bisitatu eta iritziak jaso ditugu programak dituen zailtasun eta gabeziak biltzeko, beti ere irakasleen artean sortzen ari diren kezkek eta eskaerak atzendu gabe. Txosten horretan agertzen den informazioa ez du inork ukatu orain arte; beraz, bat egiten dugu Hezkuntza Departamentuak PAI gelditzeko beharraren inguruan hartu duen erabakiarekin, egokitasunaren inguruko azterketa egiten den bitartean. Era berean, gobernuak sostengatzen duten lau alderdiek erdietsitako akordioan garbi jaso izana itxaropentsua da, ezbairik gabe.

Zalantzarik gabe, hezkuntzaren helburuetako bat atzerriko hizkuntzetan egoki trebatzea da. Hori eta beste hainbat ezagutzaren aukera unibertsala behar du jaso sistema arautuak. Baina ingelesaren irakaskuntza ez da lehena, ez eta garrantzitsuena ere. Aukera unibertsala defendatzen dugu, eta aukera berdintasunarekin egiten dugu bat. Ikasleek erdietsi behar duten ingeles maila zehaztu behar dugu (bai eta beste hizkuntzena ere), eta zein bideri jorratu behar zaion ongi heldu. European adibide egokiak ditugu eta hor gaitasuna bestelako bidez lortzen da.

PAIrekin bat egitea inolako baldintzarik gabe, ebaluazio, birplanteatze eta moldaketarik beharrezko ikusi gabe, Barcinak defendatutako helburua sostengatzea da. Ikusmolde horrek hezkuntza sistemaren kalitatearekin zerikusirik ez duen bestelako helburua defendatzea da; eta honek ez du inolako harremanik hizkuntzaren irakaskuntzaren aukera unibertsalarekin.

Gure sindikatuak PAIren inguruan jasotzen ari ginen kezkek arduraturik galdeketa egin zuen ezarrita zegoen ikastetxeetan eta horren gaineko txostenak egin zituen jasotako informazioa bilduz. (http://issuu.com/steilas/docs/pai_txostena_-_dossier_pai). Biak atxikituak daude paperean. .Horietaz gain, "ez dago inor soberan" izeneko informazioa zabaldu genuen ikastetxeetan. Hirurak atxikituak daude.

Estatu mailan Nafarroako PAIrekin antza handia duen programa ebaluatu du Fedea Madrilen . (Evaluación de un programa de educación bilingüe en España: El impacto más allá del aprendizaje del idioma extranjero): <http://documentos.fedea.net/pubs/dt/2013/dt-2013-08.pdf>

Gure eskaerak:

- Sindikatuoi agertzea moratoria nola ulertzen duen Nafarroako Gobernuak.
- Sindikatuoi azaltzea nola burutuko den PAIren ebaluazioa.
- Atzerriko hizkuntzen irakaskuntza: metodologia, ereduak... gaien sakontzea adituekin.
- Sindikatuok, eta Hezkuntza Komunitate osoak, ebaluazioan izanen dugun papera azaltzea.

2.- LOMCE.

ARGI ETA GARBI LOMCEREN AURKA

Argi utzi dugu behin eta berriro, baita Parlamentuko batzordeetan ere , LOMCEren aurka gaudela. Hezkuntza sistemak interes pribatu eta lan merkatuaren menpe jarri nahi baitu. LOMCEk Ez ditu bermatzen aukera berdintasuna, ikasleen garapen integrala edo pentsamendu kritikoa, besteak beste. Hezkuntza eragileok, partidu politikoak, ikasleak, familiak..... denok kontra izan arren gobernuak aurrera jarraitu du. Steilas sindikatuak erabat gaitzetsi du LOMCE.

ORAIN ARTEKO LOMCEREN EZARPENAREN BALORAZIOA

Lehen Hezkuntzan eta Oinarrizko Lanbide Heziketan LOMCE ezarri denetik ez da baloraziorik egin. Hezkuntza Departamentuko arduradunek mantra bat errepikatu dute: aldaketarik ez zegoela eta "probisionalki" ez dira jarri ikustatzen zer egiten ari den ikastetxeetan, kontrako mugimenduak izan ez zitezten.

Lehen Hezkuntzan Currikulumean ez da asko aldatu 2014/15 ikasturtean curriculum berriak argitaratu baitziren berandu eta ez zen testuliburu berririk izan; zikloak formalki desagertu dira, baina aurreko urtean "utzi zuten" bloke organizatiboetan antolatzen... Aurtengo ikasturtean (2015/16), berriz, aukera hori ez da aipatu kurtso hasierako jarraibideetan. Eta gelditzen zen kudeaketa demokratikoaren apurra hainbat ikastetxetan mantendu badute, administrazioak beste aldera begiratu du. Eta ez da zehaztu Klaustro eta Eskola Kontseiluaren parte-hartzea, kontrako jarrerak indartuko zirelakoan.

Administrazioak LOMCEren alderdi bakarra bakan batzuk utzi ditu garatu gabe. Horien artean, zuzendaria aukeratzeko prozedura, eta hau ez omen da kasualitatea izan, eta ezkutuko helburuarekin egin da.

Irakasleak lanez gainezka gaude, ilusiorik gabe, kontra egiten badugu jasan ditzakegun ondorioen beldur, etsiturik... Hala ere, hezkuntza kalitatea mantendu bada, eta mantendu da, irakasleen inplikazioagatik izan da. **Ezin da haritik tiratzen jarraitu hautsi gabe.**

Oinarrizko Lanbide Heziketan ez dakigu zein curriculum eman zuten, argitaratu gabe baitziren 1. Hiruhilekoan. Ratioak PCPIkoak baino altuagoak izan dira , aholkatu zen metodologia ez zuen inork ezagutzen eta behar ziren baliabideak martxan jartzeko ez dituzte izan hainbat ikastetxetan.

DBH ETA BATXILERGOAN ERE LOMCE NAFAR ERARA?

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoaren Dekretuak uztailan publikatu ziren eta Lehen hezkuntzakoekin gertatu zen bezala, Madrilgoak jarraitzen dituzte, lau gauzatxo eransten Nafarroa aipatzen dela esateko. Hori bai, azpimarratzen dute, beharrik izan gabe, erlijioaren kurrikuluma hierarkia erlijiosoaren eskuetan gelditzen dela eta hezkuntzak ezin duela inolako kontrolik egin.

Aniztasun trataerarako neurriak aipatzen dira zehaztasunik gabe: aukera arloak eremuka antolatzeke, errefortzuak, bikoizketak... Orain ezagutzen dugun dibertsifikazioa badirudi desagertzen dela eta DBH titulua lortzeko errebalida pasatu behar da. Baia ala bai. Bidean gelditzen direnentzat... Oinarrizko Lanbide Heziketa

Arloen pisua banatzerakoan soilik parte hartzen utzi da eta ez da kasuala. Irakasleen artean eztabaidatzeko miserien banaketa, ordu bat gora ala behera (baina batzuentzat lana izan ala ez izan suposa dezake honek); horrela, ez da eztabaidatzen mamiaz, edukiaz, konpetentziaz, ezartzen den eredu neoliberal gordinaz.

2015/2016 ikastuteko lan zama ekainean egin zen, LOMCEren arabera, eta ondorioz, UPNko gobernuak ezarritako egutegiari jarraitu zaio.

ETA ORAIN, ZER?

Gobernuari ausardia eskatzen diogu LOMCEren ezarpenarekin ez jarraitzeko. Benetan txarrak diren curriculuak ezarrita ere, Nafarroako Gobernuak kalitatearen kontra doazen beste neurriak ez aplikatzea espero dugu, edota hezkuntza komunitatearen parte-hartzea murrizten dutenak. Kudeaketa demokratikoa defendatuko dugu, eta horretarako LOMCEk zuzendaritzei ematen dizkien eskuduntzak gelditu. Era berean, irakaskuntza pribatuari itunak ez zabaltzeko, eta generoaren arabera ikasleak bereizten dituzten ikastetxeak kanpo uzteko.

Beste hainbat hezkuntza eragilerekin batera LOMCEri aurre egiteko eta gure hezkuntza eredu propioa eraikitzeke hainbat pauso zehaztu genuen; eta bide horri jarraituko diogu. STEILAS ez da geldituko Madrildik etor daitekeenaren esperoan, ea noiz aldatzen duten, ezta hobekixea den beste lege baten esperoan ere. Hezkuntza eredu propioa behar dugu, gure beharretara eta helburuetara egokitua.

<https://gurehezkuntzaeraiki.wordpress.com/2014/09/02/gida-lomceri-aurre-egin-eta-euskal-herrian-gure-hezkuntza-eraikitzeke/>

Oraingo Administrazioak LOMCEren gainean duen iritziaren berri prentsaren bidez izan dugu, eta kontrajarriak izan dira egunkariaren arabera. Zuzeneko informazioa behar dugu.

Gure eskaerak:

- Mahai Sektoriala deitzea eta LOMCEren aurrean Departamentuak duen jarrera ematea eta nola jokatu duen azaltzea.
- Sindikatuoi, eta hezkuntza eragile guztiei, aukera zabaltzea proposamenak egiteko egokien ikusten den moduan.

3.- OPE. Lan eskaintza publikoa. STEILASen proposamena

Egoeraren azterketa

2007-2011ko paktuko iraunaldiaren arabera, urtero oposizio-deialdia egitea adostu zen, urtero txandakatuz Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako eskaintza, Bigarren Hezkuntzako eskaintzarekin interinitate altua murrizteko xedearekin, %25 langileak interinoak baitziren eta %8 izatea lortu nahi baitzen. Itundutako azkeneko deialdian, 2011n, 132 plaza eskaini ziren Haur eta Lehen Hezkuntzan, gehienak ingelerako espezialitatean, eskaintza hitzartutako kopurua baino askoz ere gutxiagoa izanik. Hala, soilik interinitatea %12an murriztea lortu zen.

Langileen murrizketa jarraiak izan arren, ratioen handitzeagatik eta irakasleagoak irakaskuntza zuzenari ordu gehiago eskaini behar izanagatik, gaur egun interinitatea %20 baino gehiagoko da.

Kontratazioen datuak opakotasunez aurkezten direnez, gaur egun espezialitate desberdinen langileen beharren analisi zehatza egitea eragozten digu. 400 kontratatu gutxiago direla esaten den arren, 2010etik 800 bat lanpostu ezereztu direla kalkulatzen dugu.

Musika Eskolako egoera aipamen berezia merezi du, langile gehiengo interinoa edo zerbitzu eginkizunetan baitago, lehen baino lehen, egonkortasunarako, irtenbide bat bilatu beharko genukeelarik.

Aurreko Gobernuak Hezkuntzako EPEa aurkeztu zuen 134 plazekin, beraien kalkuluen arabera, 2011tik 2014ra %10eko birjarpenarekin eta 2015ean %50arekin. Plaza hauetatik, 14 Ikuskaritzarako zuzenduko liriateke, 100 Haur eta Lehen Hezkuntzarako eta 20 Bigarren Hezkuntzako bi espezialitateentzat (Psikopedagogia eta Esku-hartze soziokomunitarioa). Haur eta Lehen Hezkuntzako eskaintza gehiena ingelerako C1eko profilarekin eskatzeko asmoa zegoen, PAI programaren beharrak betetzeko, baina gaurko 2007ko Erreal Dekretuarekin, zeinek maisu-maistren gorputzean sartzea erregulatzen duen, ez du kontenplatu atzerriko hizkuntzarako maila berezirik izateko beharra, hori berezko hizkuntza duten erkidegoek soilik eska dezaketelarik, beren berezko hizkuntza ezagutzea beharrezkoa diren plazetan.

Ez dakigu hauek diren Nafarroako hezkuntza sistemako langileen premiazko beharrak.

Gure irakurketa

Uste dugu Administrazio Publikoan lan egiten duen pertsona orok egonkortasuna izan behar duela baina ez gaude ados egun indarrean dagoen oposaketa sistemarekin. Irakasleen kasuan LOEk ezarri zuen oposaketa-trantsizio sistema ezarri zuen. Sistema hau egokiena izan gabe zentzuzkoagoa zen; ezaguera praktikoak lehenesten ziren eta probak ez ziren kanporatzaileak. Tamalez, Hezkuntza Ministeritzak aurreko eredu berrezarri du.

Gaur egun Hezkuntza Departamentuan lan egiten duten interinoen kontratazioa sindatuen iritzaren kontra impositutako 60/2009 Foru Dekretuak arautzen du. Dekretu hau erabat bidegabekoa da, azken oposaketa sistema gainditu zutenak

saritzen baititu, lan esperientziaren gainerik. Ez dago zerrenden irekiera normalizaturik ezta birbaremaziorik. Hortaz, ikasketak bukatzen dituzten pertsonak ez dute zerrendan sartzeko aukerarik eta jadanik barruan daudenek ezin dituzte merituak gaurkotu.

Egonkortasuna, bai interinoen aldetik baita ikastetxeetako langileen aldetik bermatu ahalko lirateke ez soilik EPEen bitartez, zeinarekin funtzionarioa izatea lortu daitekeen, baita beste neurri batzuk harturik ere, urteak Nafarroako administrazioan lanean daramaten langileen ezegonkortasunarekin amaitzeko.

Orain arte Nafarroan oposaketan deialdiak bereizturik egin dira eta kontratazio zerrenda desberdinak daude D eta A/G ereduak hain zuzen ere. Horregatik, pertsona elebidunak nahiz eta gaitasuna izan eredu linguistiko guztietan lan egiteko, behartuak daude zein eredutan oposatu nahi duten hautatzera, beren aukerak murriztuz.

OPE eskaintza

Irakas-Gorputz guztietan dauden beharren inguruko hausnarketa sakona egin beharko litzateke, interinitate tasa epe motzera eta erdira ere jaitsiko lukeen plangintza baten barnean.

2015eko ekainean Estatuko Autonomia Erkidego gehienetan Bigarren Hezkuntzako oposaketan deialdia egon denez, Nafarroan Gorputz horretarako plazak eskainiko balira, beste Erkidegoetako jende mordoak aurkeztuko litzateke Nafarroan eta hemengo interinoak kaltetuak izanen lirateke. Horregatik, uste dugu 2016ko deialdian Lehen eta Haur Hezkuntzako plazak eskaini beharko liratekeela. Gainera, Musikako Eskolan dauden interinitate tasa altuak ikusita, Gorputz horretan ere oposaketak egotea komenigarria dela ikusten dugu.

Horrela, beste sarbide sistema bat eratzen ez den bitartean urtez urte Gorputz bakoitza txandakatuz joan beharko litzateke, hori bai, gainerako Erkidegoekin bat eginez eta espezialitate bakoitzean ahalik eta plaza gehien ateratzen.

Eskaintzen diren plazak espezialitateka izan beharko lirateke, eta ez espezialitate eta hizkuntzaka, orain gertatzen den moduan. Ez luke hizkuntzaren araberrako (euskera edo gaztelania) epai-mahirik egon behar. Egokiena izanen litzateke proba aukeratutako hizkuntzan egitea eta gero zerrenda bakarra eratzea (hizkuntza perfilak kontuan harturik).

Bestelako proposamenak

Honen guztiaren gainerik, urgentziazkoa da interinoen zerrenden kudeaketa arautzen duen 60/2009 Foru Dekretua lehen bait lehen indargabetzea eta oposaketaren eta interinoen zerrenden funtzionamenduaren artean harremanik ez izatea.

Gure eskaerak:

- Mahai sektoriala deitzea sindikatuon ekarpenak jasotzeko eta Departamentuaren asmoak azaltzeko. Negoziazioa eskatzen dugu atal honetan.
- Beranduenez, urriaren hasieran publiko egitea lan eskaintzaren inguruko informazioa, eta ahal izanez gero, ondorengo urteetan zer nolako asmoak dituen Departamentuak.
- Oposizioen ereduaren gaineko eztabaida zabaltzea.

Oposizioen inguruko bestelako eskaerak:

- Irailean Mahai Sektoriala egitea sindikatuokin eztabaidatzeko horren inguruan.
- Oposizioen inguruko eskaera:
 - Datozen urteetarako plangintza.
 - Derogación del Decreto 60/2009 de 8 de mayo
 - Oposizioen ezaugarriez negoziazioa: ezpezialitateen arabera deitzea, eta ez espezialitatea eta hizkuntza; epaimahai bakarra, ebaluatzeko irizpideak aldeztatik ezagutzea...

4.- Formakuntza

Hezkuntza Departamentuak azken urteotan prestakuntzaren inguruan eraman duen bidea ikusita oso kritiko agertu da. Benetan asaldagarriak iruditu zaizkigu ILZak desagertu izana eta EIBZren eskaintza – eta baliabideak – horrenbeste murriztu izana.

Ezbairik gabe, Administrazioari dagokio egokia eta beharrezkoa den formakuntza eskaintzea irakasleoi. Beharrei egoki erantzungo badiegu, horren diseinuan hezkuntza eragile guztion ekarpen eta eskaerak kontuan hartu behar direlakoan gaude. Horretaz gain, bitarteko pertsonal eta ekonomikoak ezinbestekoak dira.

Gure eskaera:

- Hezkuntza eragileon parte-hartzea bultzatzea prestakuntzaren eredua zehazteko.

5.- Hezkidetza

Berdintasun plana.

2013ko azaroaren 28an Nafarroako Parlamentuak hezkidetza plana, edo berdintasunean hezteko plana, egiteko agindua eman zion Hezkuntza Departamentuari, Hezkuntza Departamentuak berak bultzaturik; INAFIren aholkularitza eta laguntza izan behar zuena. (<http://www.parlamentodenavarra.es/663/section.aspx?idnoticia=5130>)

Sei hilabeteko epea eman zitzaion helburuari heltzeko, eta Planaren osaketan, besteak beste, irakasle, ikasle eta familien parte-hartzea ezinbestekotzat hartzen zen.

Berdintasun Plana berandu aurkeztu zen, eta ez zuen inolako parte-hartzerik izan. Gure sindikatuak Plana bertan bera uzteko eta berria egiteko eskaera egin zuen, arrazoi batzuk tarteko. Talde parlamentariekin harremanetan jarri ginen Plana aldarazteko eta bere horretan ez onesteko, eta momentu horretan oposizioan ziren talde parlamentariak gure jarrerarekin bat egin zuten.

2014ko azaroaren 18an Kontseilariak berak iragarri zuen Plana erretiratzen zuela, eta haren berrosaketa iragarri zuen. Ez dugu, hala ere, zentzu horretan inolako aurrerapausorik ezagutu; guztiz kontrakoa ikusi dugu: Departamentuaren web orri ofizialean Plana agertzen da, eta kurtso hasierako jarraibideetan horri egiten zaio aipua.

Bestalde, hezkidetzaren inguruan gure sindikatuak osatu duen genero eta sexu aniztasuna lantzeko gidaliburua atxikitu dugu. ([lotura](#)) Honen gainean luze hitz egiteko aukera izanen dugu, eta ikusiko dugu nola jorratzen dugun hezkuntzan aniztasun afektibo sexuala eta genero aniztasuna

Gure eskaera:

- Parlamentuak egindako eskaerari berriro heltzea eta prozesu parte-hartzailea egitea.
- Hezkidetza gaia urgentziaz jorratu eta behar adina baliabide ezarri (ekonomiko eta pertsonal), eta Hezkuntza Departamentuaren egituran islatzea.

6.- 0/3 zikloa

Atxikitua duzu gure sindikatuak ziklo hezitzaile honen gainean iaz egin zuen irakurketa. Halakoxe dago jasota gobernu akordioan, eta horri helduko diogu.

Steilasek ziklo hezitzailea dela defendatzen du, eta kudeaketa publikoa.

Gure eskaerak:

- Departamentuak agertzea nolako ibilbide egingen duen zikloa antolatzeko.
- 0-3 Plataformarekin elkartzea asmoen berri emateko.

Steilas sindikatuak parte hartzen du 0-3 Plataforman.

7.- Lanbide Heziketa eta Helduen Irakaskuntza.

LOMCEn hartutako neurriak Lanbide Heziketa indartzeko kaltegarriak ikusten ditugu:

- Oinarrizko Lanbide Heziketa erabat baztertua da, ez du inolaz ere bermatzen ikasleen aukera berdintasuna.
- Praktikoagoa izateko hartutako bidea, Lanbide Heziketa Duala, zalantza betetako da lanpostuen eskaintza ordezkatzeko arriskua baitago eta gainera, ikasleei ez zaie bermatzen formakuntza egokia eskainiko zaiela. Hezkuntza komunitate osoak berraztertu beharko luke gaia eta kontrol neurri zehatzak ezarri beharko liriateke.

Lanbide Heziketa indartu behar dela begi bistan dago. Alde batetik, eskaintza egokitu beharko lieke Nafarroako zonalde ezberdinen beharrei eta beste aldetik, lana sortzeko aukera berriak sortu beharko liriateke. Gainera, eskaintza modularra eta malgua izan beharko litzateke, lana, ikasketak eta familia ardurak batera eramateko aukera izateko.

Zabaldu behar da euskaraz dagoen eskaintza urria, D ereduan aritu diren ikasle gehienek ezin baitute lanbide Heziketako ikasketak euskaraz jarraitu.

Helduen irakaskuntzari dagokionez oraingo sarea indartu eta dibertsifikatu beharko litzateke hezkuntza formala zein ez-formala eskainiz.

Beste gai garrantzitsu bat, eta ezinbestekoa da aurre egitea, langile eta langabetuentzako formazioa da. Hezkuntzak eta enplegu departamentuak adostu beharko lukete diseinua; eta ezin da utzi, orain arte bezala, CEN,CCOO eta UGT esku eta mesedetan. Kudeaketa publikoa egin behar da eta baliabide publikoak erabili beharko liriateke. Horretarako Lanbide Heziketako ikastetxeak eta giza-baliabideak erabiltzeko aukera izango litzateke.

Gure eskaerak:

- Oinarrizko Lanbide Heziketa bertan behera uztea.
- Lanbide Heziketa dualaren diseinua berrikustea hezkuntza eragileekin.
- Lanbide heziketa osoa berrikusi eta euskarazko eskaintza areagotu.
- Helduen irakaskuntza indartu eta bere diseinuan parte hartzea.
- Langabetu eta langabetuentzat formazioa Hezkuntza Departamentuaren ardurapean egoteko urratsak ematea.

8.- NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUA

Hezkuntza maila goreneko organoa da. Hitz potoloak eta neurri handi batean hutsalak, haren osaketa eta kontsulta organoa dela kontuan hartzen badugu. Hezkuntza Departamentuak agindutakoen menpe, eta Hezkuntza Ministerioaren aginduak betearazteko tresna bihurtua. Honela jokatu da askotan, eta argudio sinple bat erabiliz: oinarrizko legeak bete behar dira. Madrildik etorri den legearekin zintzoki eta irmoki lerratzeko aitzakia paregabea. Kontrako iritziak eta ekimenak sistematikoki ixildu dira.

Eginkizunei bagagozkie, proposatzailea den organo bihurtu behar dugu, eta erabakiak lotesle izan. Bide berriak jorratu behar dira: txostenak egin, edo proposamen zehatzak, agindu foral eta dekretu foralak egiteko. Beraz, erabateko autonomia behar luke izan, elkarrizketa bultzatu, eta behar den kasuetan ezetz esateko gauza den organoa, naturaltasun osoz. Hauxe da hezkuntza eragileok, hezkuntzak berak, behar eta desio duen eredua.

Gure eskaera

Nafarroako Eskola Kontseiluaren berrosaketa bultzatzea hezkuntza eragileekin batera. Funtzioak eta osaketa bera ere berrikusi eta egokitu.

9.- Epaitegietara eramandakoak.

Abuztuan izaniko bileran epaitegietara eramandako hainbat auziren gaineko informazioa aipatu genuen. Auziak honakoak:

- Vacaciones generadas. Interinoei, azken urteotan, opor egun guztiak ordaindu beharrean, berez "disfrutatu dituzten opor egunak" deskontatu egin zaizkie. Hezkuntza Departamentuko zerbitzu juridikoek honela definitu dituzte Aste Santuko eta Gabonetako egun ez lektiboak. Epaitegietara jo dugu eta kasu guztietan gure aldeko epaiak izan ditugu. Epaiak ez dute helegiterik onartzen, beraz, kasu guztietan Departamentuak epaia bete eta ordaindu behar izan du zehazturiko kopurua.

- "Vacaciones disfrutadas". Lehengoa bezalakoa kasua da, baina kasu honetan oporraldia disfrutatu ezin izan duten funtzionarioen kasuan izan da. Behin sendagiria hartuta, disfrutatu ez dituzten opor egunak hartzeko eskubidea dute, baina horretan ere irakurketa murriztailea egin du Departamentuak, eta Aste Santuko eta Gabonetako egunak kendu. Langileen aldeko epaiak ditugu, eta Departamentuak onartu behar izan die dagozkien opor egunak disfrutatzeke eskubide osoa.

Aurreko Departamentuko arduradunei gure eskaera luzaturik ere, ez dute deus egin egoera zuzentzeko, eta irizpide aldaketa goiko arduradunen esku utzi dute.

Gauzak honela, GURE ESKAERA honakoa da:

- Finikitoetan honelakorik ez egitea aurrerantzean, eta agindua emateko dirua ez kentzeko.
- Aurreko urteetako finikitoak berrikustea eta egoera zuzentzea.
- Interinoek gorako helegitearen bidez eskaera luzatzen badute, onartzea; epaitegiak saihesteko.

10.- Hezkuntza hartu beharreko berehalako neurriak eta hezkuntza departamentuaren organigrama

Geroa Bai, EH Bildu, Podemos/Ahal dugu eta Izquierda/Ezkerra gobernu akordioa eztabaidatzen eta adosten ari ziren momentuan gure sindikatuak dokumentua igorri zion hezkuntza hartu beharreko berehalako neurriak bilduz.

Atxikitua dago dokumentu hori.

Gobernu akordiorako alderdi guztiei **steilasek** bidali zien dekalogoan, puntu batean eskatzen genuen Hezkuntza Departamentuaren lanpostuak osatzea gardentasuna bermatuz, proiektuak edota baremo baten bitartez . Agian premiagatik ez da apenas ukitu aurreko gobernuak zuen organigrama eta izendapenak egin dira "betiko moduan".

Gure eskaera:

- Organigrama berrikustea eta gobernuaren programako helburuei erantzuteko egitura egokitzea
- Ardura bakoitzerako behar diren pertsonak modu gardenez aukeratzea

Gobernu akordioan agertzen diren puntu gehienekin bat egiten dugu, eta bereziki hezkuntza publikoari bultzada emateko konpromisoarekin. Adosturiko puntuak betetzeko zelatan ibiliko garen konpromisoa berresten dugu.

Gogo handiz ekin diogu aurtengo ikasturteari. Berresten dugu, bileran esan bezala, hezkuntza publikoaren hobekuntza lan egiteko konpromisoa. Bidelagun izanen gaituzu horietan guztietan, proposamenak egiten segituko dugu, eta, hala irizten badugu gure irakurketa kritikoa. Horixe izanen dugu lanabesa.

11.- Sindikalgintza

Asko dira datozen lau urteotan jorratu beharko ditugun gaiak.

1.- Negoziazio kolektiboa eta Negoziazio mahaien funtzionamendurako proposamena :

Steilasek negoziazio kolektiboaren beharra berretsi eta azpimarratzen du. Langileon ordezkariekin Mahai Sektorialetan edota bestelako foroetan elkartzea eta langileon lan baldintzak negoziatzea da gure eginkizuna, bai eta hezkuntza eragileak garen aldetik norabidearekin zerikusirik duten gaiak jorratzea eta hitzarmenak erdiestea ere .

Funtzio Publikoko kontseilariarekin izaniko bileran aipatu genuen Mahai Sektorial eta Mahai Orokorren funtzionamendua aztertu behar dugula. Atxikitua duzu gure sindikatuak M^a Jose Beaumonti eta Amaia Goñiri igorritako dokumentua.

2.- Ituna.

Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko Ituna (2007-2011) sinatu zuen gure sindikatuak. 2011 urtetik hona Hezkuntza Departamentuak ez du itun berririk sinatzeko inolako ahaleginik egin, eta agintekeriaz jokatu du hainbat eta hainbat puntutan, ebazpen bitartez aginduz.

Negoiazioa eskatzen dugu itun berria izateko, gure lan baldintzak zehazteko; izan ere, aurreko ituna 2011 urtera artekoa bazen, hainbat gai garatu gabe geratu zen, edota Administrazioak irakurketa murriztailea egin zuen. Orain 2001 urteko Ituna dugu indarrean. Gabeziak nabarmenak dira, eta horretaz baliatu izan da administrazioa irizpide eta arau asko inolako kontsentsurik gabe; eta hau berrikusteko beharra azpimarratzen dugu, langileon eskubideak zapaltzen baitituzte, eta bereziki langile interinoen lan baldintzak. Gainera, ikasleei ematen zaien hezkuntza kalitatean ere ondorioak ditu. Sindikatu guztion aldarrikapenetan dago helburu hau, eta proposamen komuna egiteko ahaleginean egin beharko dugu lan.